



6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA



HELBURUA:

Guztiek ura eta saneamendua izan dezaten bermatzea, eta ur-baliabideen kudeaketa iraunkorra bermatzea

6. GJHK ur horniduran eta saneamenduan eragin nahi du, baliabide hidrikoen kontrola eta kudeaketa jorratuz.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Uraren zikloaren kudeaketa
- Ur hornidura eta ur edangarria
- Ur kontsumoa eta baliabide hidrikoen erabilera jasangarria
- Ur saneamendua eta higiene zerbitzuak
- Ur-ekosistemak

Garapen Jasangarrirako 6. **Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJH izango ditu lankidetzaz eremu gehien:



ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

Uraren zikloaren kudeaketa

2018 urtetik, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren *Gipuzkoako Urak* enpresa publikoak Uraren Ziklo Integralaren Zerbitzua ematen dio Zarauzko udalerriri altan eta bajaran. Hau da, ura urtegi biltzea, ondoren araztea eta bertatik udalerrietako deposituetara eramatea, horietatik erabiltzaileei banatzea, ur zikinak jasotzea eta araztea, eta bukatzeko itsasora isurtzea.

Honekin batera, Gipuzkoako Urak enpresak instalazioen mantentze eta konpontze lanak, ur-ihesen bilketa eta detekzioa eta uren kalitatearen kontrola kudeatzen du eta abonatuak kudeaketa egiten du baita ere.

Gaur egun indarrean dagoen Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Uraren Ziklo Integralaren Zerbitzua arautzen duen Ordenantza 2020ko abenduan onartu zen.

Gipuzkoako Urak Zarauzko Udalarekin adostutako urteko inbertsio-plan bat du hornidura- eta saneamendu-sistemak hobetzeko. Horien artean dauzkan erronkak ondorengoak dira:

- **Hornidura** aldetik sarea osatzen duten materialen aldaketak egiten joatea eta horrekin batera ur-ihesen kontrola egin eta hauek gutxitzen joatea.
- **Saneamendu** aldetik bi helburu nagusi: Alde batetik sare unitarioak kentzen joatea eta euri urak eta ur zikinak banatzea, eta bestetik, itsasoko ura saneamenduko kolektorerara ez sartzeko ekintzak burutzea eta egoera hauek ematen direnean sortzen diren kalteen kontrolak eta interbentzioak egitea.

Zarautzen, Tarifa Finkoak eta kontsumitutako ura fakturatzeko da. Ura kontsumitzen bada, Tarifa finkoaz gain, kontsumitutako uraren arabera fakturatu da. Hona hemen kontzeptuen azalpena:

TARIFA FINKOAK: Ura erabili edo ez, derrigorrez ordaindu beharreko kopuru finkoa da, uraren erabilgarritasunagatik. Prezioa uraren erabilera eta kontagailuaren arabera aldatuko da. Hauek dira:

- **URA:** Gordetzeko, ur edangarria tratatzeko eta abonatuenganainoko banaketa kostuei dagokion kopurua da.
- **SANEAMENDUA ETA ARAZKETA:** Hondakin urak jasotzeko, garraiatzeko eta arazteko kostuei doakien kopurua da.
- **SANEAMENDU PLANA:** Ur edangarria hornitzeko eta hondakin urak arazteko, modu egokian, beharrezko den azpiegitura berria jartzeko kostuei doakien kopurua da eta abonatu guztiek solidaritatez ordaindu behar dutena.

Gaur egun etxeko erabilerarako uraren batez besteko prezioa **1,927 €/ m³** da Gipuzkoako Urak enpresako erabiltzaileentzat (BEZik gabe) ¹, zeina estatuko etxeko erabilerarako batez besteko prezioaren antzekoa den (1,90 €/ m³). Aipatzekoa da uraren fakturak, orohar, familiaren aurrekontuaren % 0,90 suposatzen duela, baina 2020an indarren sartu den Eusko Jaurlaritzako uraren kanonaren eraginez, datozen urtetan kostu honek gora egingo duela aurreikusten da. Honekin lotuta, Uraren Esparru Zuzentarauak uraren prezioak zerbitzuaren kostua estaltzearen eskakizuna zehazten badu ere, Zarautzen kasuan ezartzen diren prezioak helburu horretatik urrun daude oraindik.

Ur hornidura eta kontsumoa

Zarautzen edateko urez hornitzeko bi hornidura-gune daude:

- **Ibaiederreko hornidura-gunea:** Ibaieder urtegiak udalerriko biztanleria gehiena hornitzen duelarik: Zarautz. Ibaieder urtegiako Edateko Uren Araztegia Azpeitian dago kokatuta. Garai batean ur hau fluoratua zegoen, baina Osakidetza onartutako dekretu baten bidez irizpideak aldatu egin ziren eta ez fluoratzeko erabakia hartu zen, beraz, gaur egun ur hau ez dago fluoratuta.
- **Zarautz-Urtetako hornidura-gunea:** Gune honek Otzarreta, Ola eta Urteta iturrietatik hartzen du ura. Urteta auzoaren zati baten beharrak asetzeko erabiltzen dira urak. Edateko ur bihurtzeko tratamendua jasotzen du, eta kasu honetan ez dago fluoratuta.


Herria urez hornitzeko udalaren beste baliabideetako bat udalerriko iturburuak izan daitezke. Gaur egun ez dira erabiltzen baina hauek ezagutu, inbentariatu, hauen gaineko kontrola eginez gero hornidura moduan ere erabili daitezke.

Gaur egungo sistemari esker, Zarautzko biztanleriaren ia %100 modu iraunkorrean eta kalitatea onean hornitzeko ahalmena badago (hirikoa zein eremu sakabanatuetakoa), baina egon daitezke baserriak beraien hartune propioak dituztenak eta bertatik hornitzen direnak. Klima-aldaketaren egoerek adierazten dute, hala ere, etorkizunean iturri eta arro txikien mendeko hornikuntza-sistemek ez luketela hornikuntza bermatuko lehorte luzeetan.

¹ 2022-2027 Plan Hidrologikoaren Proiektuaren Proposamena - X. eranskina. Kostuak berreskuratzea

UR GARBIA ETA SANEAMENDUA

Uraren kalifikazio sanitarioa



Iturria: Osasun Saila (EJ)

Uraren kalitateari dagokionez bi kategoria hartzen dira kontuan: (1) Udalerriaren % 100 ur egokiaz hornitzen da; (2) Udalerriko hornidura-gune bat edo gehiago ur onargarri edo akastunez hornitzen dira

2016 eta 2017 urteetan **Zarautz-Urtetako hornidura-guneko uraren kalifikazioa "onargarria" izan zen. 2018 urtetik aurrera bi hornidura-guneetan uraren kalifikazioa "egokia" izan da.**


2020. urtean goi-banaketan, 1.744.400 m³ ingurukoa izan zen urteko kontsumoa eta, behe-banaketan, 1.392.000 m³-koa, beraz, **kontabilizatu gabeko ur kantitatea %20a da.** Kontabilizatu gabeko uren barruan atal desberdinak daude; neurgailuen azpikontakteta (%8), neurtu gabeko kontsumoa (kale garbiketa, baldeatzea, suak itzaltzeko zerbitzua...) (%2), kontrolatu gabekoak eta iruzurrak (%2), neurgailuak jarri aurretik instalazio pribatuen izandako ihesak (%2) eta banaketa sarearen eraginkortasun falta (%6).

EAEko batez besteko datuarekin alderatuta, Zarautzko balioa txikiagoa da, Euskadin kontabilizatu ez den ur-kopurua % 22,91 baita (2019).

Kontabilizatu gabeko ur kantitatea murrizteko helburua duten hainbat ekintza burutzen ditu Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak urtero. Ekintza ohikoenak tutueriak berritzea, ataskoen libratzea eta garbiketa eta kontagailuak berritzea da. Azken urteetan 4.579 (%36) kontagailu aldatu dira udalerrian.

Ur kontsumoari dagokionez 2016tik 2020ra arte uraren kontsumoa ez da nabarmen aldatu. Kontsumo nagusia etxekoa da, % 75 inguru. Zarautzen 2020. urtean **etxeko ur kontsumoa 121,34 l/biz/egun** izan zen. Euskadiko batz besteko ur kontsumoa baino altuagoak izanik. (2019. urtean 104,47 l/biz/egun izan zelarik - Espainian 128 l/biz/egun).

Ur kontsumoaren bilakaera (m³/urte)



Ur kontsumoaren bilakaera (l/biz/egun)



Iturria: Ur kontsurtzioa eta Eustat

Uraren berrerabilpena eta tratatu gabeko urak erabiltzea

Golf zelaiek orokorrean ur kontsumo altuak behar izaten dituzte beraien belardiak mantentzeko. Zarautzen, hondartzaren ondoan golf zelaia dago eta akuiferotik hartzen du ura bere aktibitaterako. Ur-kontagailuak jarrita dauzka eta Ur Agentziarekin tramitatzen ari da baimena. Hala ere, Real Golf Club Zarauz-ek bere zelaiak ureztatzeko araztegiko urak erabiltzeko proiektua proposatu dio udalari, gaur egun mahai gainean dagoena. Hala ere, honek akuiferoan nola eragingo duen eta lege aldetik zein betebehar eta eginkizun dituen aztertu behar da.

Azkenik, tratatu gabeko ura erabiltzen da udaleko zerbitzu batzuetan:

- Kale garbiketan hiru erreka iturrietako ur tratatu gabea erabiltzen da
- Hondartzetako dutxetan eta hankak garbitzeko iturrietan tratatu gabeko lur azpiko akuiferoko ura erabili izan da 2017ra arte, horrela erabili ondoren, berriro ere akuiferora itzultzen zen. Osasun Saisetik eta Udaletik egindako azterketa batzuen ondoren erabilera hau kendu egin behar izan zen, kutsadura mikrobiologikoa egon zitekeenaren susmoa piztu baitzen. Hala ere, lanketa honekin jarraitzeko asmoa dauka udalak.

Ur saneamendua eta arazketa

Zarauzko saneamendu sistema Urola Kosta saneamendu sistemaren barne dago. Zarauzko eta Orioko saneamendua osatzen dute bi udalerrietako kolektore orokorrek, Orioko ur zikinaren ponpaketak Zarautzeraino eta Zarauzko Iñurritzako Hondakin Uren Araztegiak. Azpiegitura honek udalerriko auzo gehienak eta industrialdeak estaltzen ditu. Errotaberri industrialdeko saneamendu sarea osatzeko lanketa egiten ari da gaur egun eta hau osatutakoan industriagune guztiak egongo dira konektatuta. Zenbait landa gune, baserri eta industria batzuk sistema honetatik kanpo geratzen dira. Kasu hauetan, beraien ur zikinak garbitzeko berezko sistemak dituztela uste bada ere, ez dago udalean horien inbentariarik eta ez da ezagutzen sistema horien funtzionamendu zuzena den.

Bestalde, saneamendu sareari dagokionez, oraindik ere udalerriko eremu batzuetan euri urak eta ur zikinak ez daude bananduta. Honek arazoak sortzen ditu eurite askoko garaietan, izan ere, ur guzti horiek Iñurritzako Hondakin Uren Araztegiara doaz. Honek arazo ekonomikoa sortzeaz gain, araztegia bere limitean egotea eragiten du eta beraz, uren tratamendu kalitatean eragiteaz, izan ere, urak prozesua azkarrago egin behar du arazteko prozesuko faseetan.

Ur-ekosistemak eta hauen berreskuratzea

Zarautzetik igarotzen diren errekek ur-hornidura zerbitzua eskaintzen dute. Orokorrean udalerriko errekek ez dute egoera oso ona agertzen, batez ere, kasu gehienetan oso eraldatuta daudelako eta kasu batzuetan lurperatuta. Erreketako **egoera fisiko-kimikoari** dagokionez, Iñurritza errekaetan egiten ditu neurketak URAK, eta bertan egoera ona azaltzen dute, nahiz eta bestelako aldagaiak behatuz (egoera hidromorfologikoa edota egoera biologikoa) egoera horrek txarrera egiten duen.

Zarauzko udalak, zein udalaz gaindiko bestelako erakundeek (URA adibidez), ur-gezetako ekosistemen egoera hori hobetzeko lan egiten dihardute:

- Ur-eremuak naturalizatzen ari dira inguruan bertako landaredia landatuz.
- Inguruko landaredia inbaditzailea kentzen ari dira.
- Iritako hezegunea berreskuratzen ari dira.
- Errekastoak lurreratze lanak egiten ari dira: Olaa, Igerian...
- Errekak eta hezegunea garbitzeko zerbitzua dauka udalak.

EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Uraren Ziklo Integralaren Zerbitzua:** 2018 urtetik, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren *Gipuzkoako Urak* enpresa publikoak Uraren Ziklo Integralaren Zerbitzua ematen dio Zarauzko udalerriri altan eta bajan.
- **Urteko inbertsio plana hornidura- eta saneamendu-sistemak hobetzeko:** Gipuzkoako Urak Zarauzko Udalarekin adostutako urteko inbertsio-plan bat du, plan horren baitan hainbat ekimen burutzen dira: tutuak berritzea (material kutsagarriak ordezkatzuz) eta ur-ihesen kontrola, kontagailuak ezartzea, sare unitarioak bereiztea, itsasoko urak saneamenduan eragiten dituen kalteak kontrolatu eta moldatzea,...
- **Tratatu gabeko ura erabiltzeko** ekimenak martxan jartzea, adibidez kaleak garbitzeko zerbitzuan edo bere garaian hondartzetako dutxetan eta hankak garbitzeko iturrietan (hondartzetakoa gaur egun ez daude martxan)



ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Zarautz hazten ari den herria da, gero eta jende gehiago bizi da bertan, eta gainera, neguan eta udan biztanle kopurua aldatu egiten da. Honek eragina dauka baliabide naturaletan, horien artean uraren horniduran eta saneamendu azpiegituretan. Kezka dago nola eragiten dien baliabide naturalei eta azpiegiturei udalerraren hazkunde honek.
- Eskuratzeko gaitasun handiko herria da Zarautz eta horregatik baliabideen kontsumoa handia dela uste da, horien artean uraren kontsumoa. Gaur egun dagoen biztanle kopururako azpiegitura egokiak direla uste da, eta ur mozketarik ez dagoenez herritarrak uraren kontsumoaz ez direla ohartzen uste da.
- Ur kontsumo erreala datuek esaten dutena baino altuagoa denaren sententzia dago.
- Ur hornidura osasunerako egokia izan behar dela adierazten da.

ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, ur kudeaketaren arloan ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

- Udalerriko iturburu inbentarioa osatu eta hauek herria hornitzeko duten bideragarritasuna aztertu.
- Real Golf Club de Zarauz-ek araztegi uraren erabilera egiteko proiektua aztertu. Modu egoki batean kudeatu Golf zelaiaren ur erabilera.
- Udalerriko eremu sakabanatuan egon daitezkeen saneamendu moduen inbentarioa egin eta hauek saneamendu egokia egin dezaketean bideratu.
- Saneamendu sarean dauden bateratutako zatiak banandu (ur zikinak eta euri urak).
- Araztegiaren funtzionamendu hobetzeko lanak burutu, kontutan izanik biztanleriaren hazkundea.
- Itsasoko ura saneamendu sarean ez sartzeko azterketak burutu eta ekimenak aurrera eraman.
- Hondartzako dutxetan eta hankak garbitzeko iturrietan lur azpiko akuiferoko urak erabiltzeko lanketarekin jarraitu.